



Baztango Zaporeak ekimenaren aurkezpena.

ERRAN.EUS

ZER JAN, HALAKO BAZTAN

Udaletik ere elikadura eta nekazaritza eredua lantzen



Garazi Zabaleta
@tirikittrann

“Maiz badira gauzak herritarren eskue-tatik urrun daudenak edo aldatzeko zai-lak direnak. Baina badira bertze gauza batzuk herritarren eskurago daudenak: horietan eraginez tokiko errealitateak alda ditzakegu”. Joseba Otondo Bikon-doa Baztango alkatearen lehen hitzak izan dira *Zer jan, halako Baztan* ekime-naz galdetu diogunean.

Tokiko elikagaiak kontsumitzearen garrantziaz Baztango herritarrek kontzientziatzeko helburuarekin abiatu du dinamika Udalak. Bi hilabetero etxeetara bidaliko diren esku-orriekin hasi dute bidea: ale bakoitzean tokiko produktu baten gaineko informazioa eskainiko da nola egiten den azalduz, produktu horrek alor askotan duen balioari garrantzia emanez eta errezeta originalak propo-satuz. Lehen esku-orrian ardi esnea lan-du da: artzaintzari buruzko informazioa eman eta lan horrek paisaiaren zainketan duen balioa azpimarratu dute bertan.

Elikadura eta nekazaritza uztartuta

Udalak duela hilabete gutxi jarri zuen abian *Baztango zaporeak* ekimena ere:

tokiko ekoizle eraldatzaileak dira prota-gonistak, eta elkarlanaren bidez beren proiektuak garatzea da helburua. “Ur-teetan Europako nekazaritza politikek agroindustriaren eta banatzaile handien interesak bultzatu dituzte, gure bailare-tako nekazaritza txikia erraustuz”, dio Otondok. Horri buelta emateko beha-rrezko izanen dira ekoizle txikien arteko elkarlana eta batasuna, haren ustez.

“Tokioa kontsumitzea da tokiko bizitza bizirik mantentzea”

Herritik asko egin daitekeela argi du Otondok, eta norabide horretan doaz jada martxan dituzten ildoak: 1) lurren erabileraren ingurukoa, 2) produktuen eraldaketa eta merkaturatzea, 3) herri-tarren kontzientzia piztea, 4) formakun-tza eta 5) ustiategien transmisioa fami-liatik kanpo. Aurrera begira, martxan dauden ideia eta ildo horiek egituratu eta Baztanen nekazaritzaren eta elika-duraren kontseilu moduko bat sortzea dute helburu. *Baztango zaporeak* egi-tasmoaren aurkezpenean zioten bezala, “pausoz pauso, ttikitik handira”. ■

BIZI BARATZEA

**Gure kultura
iraultzen ari den liburua**

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea



Eskaerak:

943 371 545 · www.argia.eus/denda

Salneurria: 23 €

Harpideentzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIAK

Apirilak 20: Gabiria

Kultur Etxean, 18:00etan.

Udalak antolatuta.

Apirilak 23: Hendaia

Udal aretoan, 18:00etan. Ondoren otordua Balea elkartearen (otordurako izena eman behar da).

Apirilak 23: Donostia

Trinitate enparantzan, 11:00etan. Gaztetxea eskatzeko “Ez dugu non” kanpainaren barruan.

Apirilak 26: Arbizu

Lekua eta ordua zehazteke.

Maiatzak 3: Eskoriatza

Zaldibar antzokian, 18:30ean. Udalak antolatuta.

Maiatzak 4: Orkoien

Madariaga dorretxean (EAEko Biodibertsitate Zentroa), 11:30ean.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus

943 371 545